



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**OGASUNA, BARNE ANTOLAKUNTZA, PERTSONALA, KONTRATAZIOA,
SUSTAPEN EKONOMIKOA ETA MERKATARITZA BATZORDEAREN
IRIZPENA**

2018 URTALDIRAKO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA

1.- AURREKARIAK

1.1. Azkoitiko Udaleko Web gunean 2018. Urteko ekitaldirako ordenantza fiskalen gainean aurreko kontsulta publikoa argitaratu zen uztailaren 27ko datan.
Kontsulta irailaren 1a arte egon zen jende aurrean eta inork ez zuen ekarpenik egin.

Honako testua argitaratu zen:

KONTSULTA PUBLIKOA ORDENANTZA FISKALEN GAINEAN 2018. URTEKO EKITALDIRAKO

1.-ARAUAREN AURREKARIAK:

11/1989 Foru Arauak, uztaila 5ekoak, Gipuzkoako Tokiko Ogasunen erregulatuak, bere 7. artikuluan, xedatzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalerrii dagozkiena, Foru Arau honek ezartzen duen esparruan, bere zergen kudeaketa, ikuskaritza eta bilketa, zeinak egingo diren, foru arau udal zergen erregulatuak eta horien garapenerako emandako bestelako xedapenetan ezartzen diren espezialitateei kalterik egin gabe, Foru Zerga Arau Orokorrean eta horren garapenerako emandako xedapenetan aurreikusitakoaren arabera.
Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek, beren ordenantza fiskalen bitartez, hartu ahal izango dute bakoitzaren antolaketa-erregimen eta funtzionamendu propioaren aurreko atalean aipatzen den arautegia, eta moldaketa horrek ezingo du hautsi aipatutako arautegi horren eduki materiala.

ORDENANTZA FISKALEN EDUKIA:

Ordenantza Fiskalek gutxienez eduki hauek izango dituzte:

A/ Zehaztea zerga-egitatea, subjektu pasiboa, arduradunak, salbuespenak, murriztapenak eta hobariak, zerga-oinarria eta likidazio-oinarria, karga-tasa edo zerga-kuota, zergaldia eta zergaren sortzapena.

B/ Deklarazio eta diru-sarreraren araubideak.

C/ Onartze-data eta aplikatzen hasteko data.

Ordenantza Fiskal hauek onartzeko akordioak dagozkien zergak ezartzearekin batera hartuko dira.

Aipatutako Ordenantzak aldatzeko akordioek horien eraginpean dauden arauen erredakzio berria eta onartze-data eta aplikatzen hasteko data jaso beharko dituzte.

2.-KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK

Ordenantza fiskalen proiektua 2018ko ekitaldirako honako hau da:

1.- Zerbizuen kostuari aurre egitearren, Udalaren diru-sarrerari eusteko helburuarekin, %1,6ko gehikuntza ezartzen da, izaera orokorarekin, 2016ko KPI-ari dagokiona, udal-zerga eta tasetarako, salbu eta puntu hauei dagokienez:

a) Ur-homidura, saneamendu eta azpiegiturengatik tasa: tasa horietan, familia-unitatearen kide-kopurua kontuan hartuz jarraituko da fakturatzeko; hori dela-eta, tarifak desberdinak izango dira etxebizitza bakoitzaren bizikide-kopuruaren eta kontsumoaren arabera.

Aldi berean, Ur Partzuergoaren eta Udalaren tarifen artean dagoen desadostasuna dela-eta, Udalaren tasak Partzuergoarenetara egokitzea proposatzen da, 2020ko ekitaldirako; ekitaldi horretan biak berdinduko dira, bai etxeko erabilerarako direnak bai etxeko erabilerarako ez direnak.

b) Bizitegi-izaera duten ondasun higiezinak buruzko zerga:

Azkoitiko irizpide orokorra da alderaketa egitea Azkoitiaren tankerako beste hogeitaz udalerrirekin eta, hala, batezbesteko karga fiskala ezartzea.

2016. urtean, balio katastralen ponentzia berriak onartu ziren 2017ko ekitaldirako, eta horrek oso egoera desberdinak eragin ditu udalerrietan. Konparaziozko taulan eta bizitegi-izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari (OHZ) dagokionez, Azkoitiak gaur egun batezbestekoa baino karga handixeagoa dauka; beraz, zerga hori ez da igoko.

2.- Indarrean dauden hobariak zerga-legeria arautegira egokitze aldera, era honetan aldatuko da zerbiztu publikoak eman eta jarduerak egiteagatik izaten diren tasen ordenantza erregulatuak:

a) Zabor- eta ur-tasetan erregulatutako hobariak diru-laguntza bihurtuko dira, familia-unitatearen bizikide eta diru-sarreraren arabera, indarrean dagoen zerga-araudira egokitze aldera.

b) Hirigintza-lizentziak emateko tasa:

Tasa ordaintzeko salbuespena kentzen zaie baserriei eta nekazaritza-, abeltzaintza- eta baratze-ustiapenekin lotutako eraikinei, eta ez dira salbuespenak hartuko baserri-eraikin berriak egiteko lanak, ez eta nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenekin lotuta egiten diren bestelako eraikuntza-lanak, indarrean dagoen zerga-araudira egokitze aldera.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

3.- ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKIERA

Motiboa: 8/1989 Legearen 18. artikulua, tasei eta prezio publikoei buruzkoak, agintzen du –ukatu gabe tasak finkatzean aintzat hartu behar dela, zergaren ezaugarriek hartarako egokiera ematen dutenean, ordaindu behar duten pertsonen gaitasun ekonomikoa–, ez dela onartuko, tasen kontuan, zerga-onura edo abantailarik batere, salbu eta Estatuaren eta bestelako lurralde-erakunde publikoen eta instituzionalen faboretan denean edo nazioarteko hitzarmen eta akordioetan ezarritakoaren ondorio denean.

Aurreko guztiak ondorioztatzen da, zergen funtsezko elementuen gainean agintzen duen lege-erreserbaren printzipioaren arabera, lege batek hala adierazten duenean baino ezingo dutela Udalek hobariak edo ordainarazpenak ezarri.

Diru-laguntzak onartzea proposatzen da, udal-tasak eta prezio publikoak ordaintzeko, familia-unitatearen bizikideen eta diru-sarreraren arabera, ordenantza fiskaletan gaur egun jasotzen diren portzentaje beretan.

4.- ORDENANTZA FISKALEN HELBURUAK 2018. URTEKO EKITALDIRAKO

Ordenantza fiskalak onartzeko eta aldatzeko eskumena Udalak arauak ezartzeko ahalaren agerpena da lekuko zerga-eremuan.

Arauak ezartzeko ahalmen hori gauzatzean Azkoitiko Udalak printzipio hauen arabera jardun behar du:

a) Beharra eta eraginkortasuna. *2018ko ekitaldirako ordenantza fiskalen ekimena interes orokorrak justifikatzen du; aurreko atalean adierazten dira horrekin lortu nahi diren helburuak, eta bera da tresnarik egokiena horiek lortzen direla bermatzeko.*

b) Proporzionaltasuna. *Ekimenak ezinbesteko erregulazioa dauka zerbitzu publikoen kudeaketa egiteko beharrei erantzuteko.*

c) Segurtasun juridikoa. *Ekimena gainerako ordenamendu juridikoarekin modu koherentean gauzatzen da; esparru arauemaile egonkor, aurrez aise ikusteko modukoa, osoa, argia eta segurtasuneko sortzen du, eta horrek ekimenaren ezagutza eta ulermena errazten ditu.*

d) Gardentasuna. *Azkoitiko udalak behar diren baliabideak jartzen ditu indarrean dagoen araudira iristeko modua erraza, unibertsala eta eguneratua izan dadin; eta kontsulta publikoari esker hartzaille izan daitezkeen pertsonen parte aktiboa har dezakete 2018ko ekitaldirako ordenantza fiskalen lanketan.*

e) Eraginkortasuna. *Ekimen arauemaile orok saihestu egin behar ditu behar ez diren karga administratiboak, eta arrazionalizatu egin behar ditu, aplikatzean, baliabide publikoen kudeaketa.*

5.- KONPONBIDE ALTERNATIBO ERREGULATZAILE ETA EZ ERREGULATZAILE POSIBLEAK

Laguntza ekonomikoak onartzea proposatu da, udal-tasak eta prezio publikoak familia-unitatearen diru-sarreraren eta bizikideen arabera ordaintzeko, ur- eta zabor-tasarako, gaur egungo ordenantza fiskaletan jasotzen diren portzentaje beretan, eta laguntza horiek oraingo hobariak ordezkatzeko dituzte.

Horretarako, Azkoitiko Udalak onartu egin beharko ditu dagokion ordenantza orokorra eta diru-laguntza horiek erregulatzeko dituzten oinarriak.

1.2. Ogasuna, barne antolakuntza, pertsonala, kontratazioa, sustapen ekonomikoa eta merkataritza batzordean, 2017ko irailaren 14ean ospatu zen horretan, besteak beste, 2018rako ordenantza fiskalen irizpideak eman ziren

4.- 2018ko ekitaldirako ordenantza fiskalak

Ana Azkoitia:

Urtez urte urrian onartuta ordenantzak gaizki ibiltzen gara Aldizkarian garaiz argitaratzeko eta aurten irailean onartzeko proposamena hartu dugu.

Uztaila bukaeran Web gunean kontsulta argitaratu genuen irizpide nagusiak zehaztuz eta ez dugu erantzunik jaso.

Orokorrean tasa eta zerga guztiei pasa den urteko KPIa ezarriko zaie, % 1,6 a, IBIa ezik. Zerga hau ez dugu ikutuko taulan goitik gabilta eta. Datorren urtean nun kokatzen garenaren arabera ikutuko da edo ez.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Plusbalia deritzaion zergaren araudia aldatzen da. Auzitegi konstituzionalaren epaiaren ondorioz soilik zerga hau galera dagoenean likidatuko da. LIkidatzeko era lehen bezela da baina irabazia dagoenean soilik sortuko da plusbalia.

Ura eta zaborraren Tasetan onarturik dauden hobariak ezabatzen dira. Hau araudi fiskalari egokitu behar da eta honetarako dirulaguntza ordenantza aterako da.

Gaur egun aztertu da eta ura eta zaborretan 51 hobari eskaera daude.

Uraren tasari dagokionez, 2020 bitartera tasa hauek konsortzioaren tasari egokitzea da helburua. Hiru urte gelditzen dira . Gure tarifen bilketa konsortzioarena baina 52.000 € gehiago dira. 2018. Urtean, egokitzapen honen ondorioz bilketa 17.000 € gehiago izango da.

Ibilgailu historikoen hobariari dagokionez gai hau aztertu dugu eta ibilgailua historiko bezela katalogatzeko kudeaketak sekulako karga dauka. Azterketa bat egin beharra dago... koste handia dauka; beraz, orain arte bezela utziko dugu: ibilgailu historikoak edota 25 urte baino gehiago dutenak

Datorren urterako familia ugarien hobariak aztertuko dira, ea hobari hauetan errentaren limiteak jartzea posible den ala ez.

Zaborraren tasari dagokionez aurtengo estaldura zeozer jaisten da, %71 izango da gutxi gora behera, inbertsioa egin delako. 2018. Urtean ordea %73ra igoko da.

Ordenantza fiskalen excela bidaliko da eta laburpen bat egingo da.

1.3. Ogasuna, barne antolakuntza, pertsonala, kontratazioa, sustapen ekonomikoa eta merkataritza batzordean, 2017ko irailaren 21ean ospatu zen horretan, besteak beste, 2018rako ordenantza fiskalen irizpenak onartu ziren

OINARRI JURIDIKOAK ETA EKONOMIKOAK

1.- ORDENANTZA FISKALA

Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, 7. artikuluan ezartzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udallerrii dagokiela, Foru Arau honek ezarritakoaren esparruan, bere zergak kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, eta ekintza horiek egiterakoan ez dira kaltetuko udal zergak arautzen dituzten foru arauetan eta horiek garatzeko ezarritako gainerako xedapenetan ezartzen diren espezialitateak, Zergen Foru Arau Orokorrean eta hau garatzeko ezarritako gainerako xedapenetan aurreikusitakoaren arabera.

Beren ordenantza fiskalen bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udallerriek, aurreko atalean aipatzen den araudia bakoitzaren barne antolamenduaren eta funtzionamenduaren arabera egokitu ahal izango dute, eta egokitzapen hori ezingo da araudi horretan jasotako eduki materialaren aurkakoa izan.

2.- ORDENANTZA FISKALEN EDUKIA:

Ordenantza fiskalek, gutxienez, ondokoa jasoko dute:

A/ Egintza ezargarri, subjektu pasibo, erantzule, salbuespen, murriztapen eta hobari, oinarri zergagarri eta likidagarri, karga mota edo tributu kuota, epealdi ezargarri eta sortzapenaren zehaztapena.

B/ Aitorpen eta sarrera erregimenak.

C/ Bere ezarpenaren onespren eta hasiera datak.

Ordenantza Fiskal hauen onspenerako akordioak, dagozkien tributuak ezartzeko akordioekin batera hartu beharko dira.

Aipatu ordenantzak aldatzeko akordioek, ukituriko arauen idazketa berria, beren onspren datak eta beren ezarpen hasiera jaso beharko dituzte.

3.-kontsulta publikoa:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 133. Artikuluan aurreiazko kontsulta egin behar dela dio edozein ordenantza edo araudi onartu aurretik.

133. artikulua. *Herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea.*

1. Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

2. Ekimenaren testua idatzi aurreko kontsultaren kalterik gabe, arauak pertsonen eskubide eta interes legitimoak eragiten dienean, zuzendaritza-zentro eskudunak dagokion webgunean argitaratuko du testua, ukitutako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona eta entitate batzuek egin ditzaketek ekarpen gehigarriak jasotzeko. Era berean, zuzenean eska dakieke iritzia arauaren eraginez beren eskubide edo interes legitimoak ukitzen zaizkien pertsonak biltzen edo ordezkatzek dituzten eta beren helburuak arauaren xedearekin zerikusi zuzena duten antolakunde edo elkarte legez aitortuei.

3. Artikulu honetan araututako kontsulta, entzunaldia eta informazio publikoa halako moldez egin beharko dira non arauaren hartzaile potentzialek eta hari buruz ekarpenak egiten dituztenek beren iritzia emateko aukera izango baitute. Horretarako, haien esku jarri beharko dira behar diren dokumentuak; dokumentu argiak, zehatzak eta gaiari buruz iritzia emateko informazio guztia biltzen dutenak.

4. Artikulu honetan aurreikusitako kontsultaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egin gabe utz daitezke Estatuaren Administrazio Orokorraren, administrazio autonomikoaren, toki-administrazioaren edo haien mendeko edo haiei lotutako antolakundeen aurrekontuei edo antolaketari buruzko arauetan edo hala justifikatzen duten interes publikoko arrazoi astunak daudenean.

Arau-proposamenak jarduera ekonomikoan eragin nabarmenik ez daukanean, xede dituen hartzaileei betebeharririk ezartzen ez dienean edo gai baten alderdi partzialak arautzen dituztenean, egin gabe utz daiteke artikulu honen lehenengo zerbakiaren araututako kontsulta publikoa. Administrazio batek legegintza-ekimena edo erregelamenduak egiteko ahala baliatzea erregulatzen duen araudiak aurreikusten badu prozedura horiek presaz izapidetu behar direla, horregatik izapidea kenduz gero hartan dioenari jarraituko zaio.

4.- 2018ko tasen azterketa ekonomikoa

Honi buruz Udal Kontu hartzaileak honako txostena egin du:

2018KO TASEN AZTERKETA EKONOMIKOA

Zerbitzu publikoak eskaintzeagatik eta jarduera administratiboak burutzeagatik aplikatzen diren tasak

Zerbitzuak eskaintzeagatik eta jarduera administratiboak egiteagatik aplikatzen diren tasei dagokienez, azterketa ekonomiko hau 2015eko ekitaldiari dagozkion datuekin egin da, likidatutako azken ekitaldia baita, eta Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 24.2. artikulua



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

xedatutakoa bete dela kreditatzeko ondorioetarako egin da. Artikulu horretan ondokoa ezartzen da: zerbitzu bat eskaintzeagatik edo jarduera bat burutzeagatik aplikatzen diren tasen zenbatekoa ezingo da, guztira, zerbitzu edo jarduera horren benetako kostua edo aurreikus daitekeen kostua baino handiagoa, edo bestela, jasotako zerbitzuaren balioa baino handiagoa izango.

2018rako irizpen orokorra tasa eta zerga guztiei pasa den urteko KPIa ezarriko zaie, % 1,5 a, IBIa ezik. Zerga hau ez da ikutuko hainbat Udalen konparaketa taulan goitik gabiltza eta.

Plusbalia deritzaion zergaren araudia aldatzen da. Auzitegi konstituzionalaren epaiaren ondorioz soilik zerga hau galera dagoenean likidatuko da. Likidatzeko era lehen bezela da baina irabazia dagoenean soilik sortuko da plusbalia.

Ura eta zaborraren tasetan zeuden hobariak diru sarrerengatik ezabatu egiten dira. Dagokion ordenantza onartuko da hurrengo hilabetean dirulaguntza moduan gauzatzeko laguntza hauek.

Uraren, estolderiaren, azpiegitura finantzatzeko kanonaren tasetan biztanleka fakturatzeko jarraituko da, hau da etxebizitza bakoitzean bizi diren biztanle kopuruaren arabera tarifa ezberdina ezarriko da. Honez gain, Udalaren tarifak eta konsortzioaren oso desberdinak izanik, bien arteko oreka proposatu zen pasa den urtean eta 2020.urtean parekatzea. Aldaketa honek etxetiarretan ehuneko 4,63ko igoera eta ez etxetiarretan ehuneko 4,17ko jeitsiera eragingo du.

Zerbitzu bakoitza eskaintzeak dakarren kostua, ondoko puntuetan oinarrituz zehazten da:

309/2016 Foru Aginduan, ekaineko 10ekoan, Gipuzkoako toki entitateek emandako zerbitzuen kostu efektiboa kalkulatzeko irizpideak eta epeak ezartzen dituenak.

- Kostu zuzenak: Aipatu foru aginduaren 4. Artikuluan xedatutakoaren arabera
- Zeharkako gastuak eta gastu horiek zerbitzuei egozteak: Aipatu foru aginduaren 4. Artikuluan xedatutakoaren arabera
- Egituraren kostu zentroen banaketa: Aipatu foru aginduaren 5.2. Artikuluan xedatutakoaren arabera. Aurreko ataletan adierazitako banaketa egin ondoren, entitatearen gastu orokorrak, 9. Gastu arloan jasoak, proportzionalki egotziko zaizkio Zerbitzu bakoitzari, bere gastu bolumenaren arabera.
- Amortizazioak: Dagokion ekitaldian eta aurrekoetan egindako inbertsioa amortizatzeagati sortutako gastuak, ibilgetuen balio-bizitzaren arabera kalkulatuak, kontabilitate alorreko araudiari jarraituz toki entitateak aplikatzen dituen irizpideak kontuan hartuta.

Azpiegiturek eta balio bizitza mugagabea duten toki entitatearen ondareko ondasunek ez dute edukiko amortizazio gasturik lotuta. Horrez gainera, ibilgetu inmaterial edo ukiezina amortizatzeagatik sortutako gastuak sartuko dira, baldin eta zerbitzuarekin zuzenean erlazionatuta badaude.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Amortizazio horiek zerbitzua eskaintzearen kostuan egozten dira. Adierazitako irizpideen arabera, ondoko eranskinak egin dira:

3.1 ZABORRAK:ZABORRAK JASOTZEKO ZERBITZUA ESKAINTZEAGATIK APLIKATZEN DEN TASA

KONTZEPTUA	KOSTU AZTERKETA BERRIAN			
	2015KO KOSTUAK	2016ko KOSTUAK	AURREIKUS 2017 AMAIERAN	2018RAKO AURREIK AURREK
Langileen gastuak	54.302,28	52.541,00	53.066,41	53.597,07
Ondasun eta zerbitzuen erosketa	80.511,15	22.086,00	22.439,38	22.663,77
amortizazioa	10.446,00	405,00	405,00	405,00
entitatearen gastu orokorrak	48.852,00	25.732,00	25.989,32	26.249,21
Zeharkako kudeaketa-mankomunitatea	1.311.637,58	1.337.268,00	1.461.545,32	1.431.141,42
interesak		17.140,00	17.311,40	17.484,51
GASTUAK GUZTIRA	1.505.749,01	1.455.172,00	1.580.756,83	1.551.540,99
BILDUTAKO DIRUA	1.093.287,00	1.049.482,80	1.127.307,89	1.144.217,51
ESTALDURA MAILA	72,61	72,12	71,31	73,75

Mankomunitatearen ekarpena 2018rako une honetan ezin da jakin zenbatekoa izango den. Aurreikusi daiteke aurtengoa gutxienez izango dela. Aurrekonturako finkatzen dutenean Mankomunitatekoek berriz ere estalduraren azterketa proposatzen da kontuhartzailatzatik.

Zaborraren tasaren zerbitzuak zerrendatzerakoan azpiatal bat Bankuak eta finantza erakundeak dira.

2018.urterako azpiatal honen deskribapena honela proposatzen da:

BAnkuak, finantza erakundeak eta antzekoak (korreos...)



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

3.2 KANPOSANTUA

KONTZEPTUA	2015eko kostuak	2016KO KOSTUAK	2017RAKO AURREIK AURREK
Langile gastuak	59.424,26	57.276,00	57.848,76
Hilerrria kontserbatzea	2.479,44		10.983,75
Energia elektrikoa	2.875,05		0,00
Errauskailurako gas hornidura	6.579,20		0,00
Hilerrriaren aseguruak	8,78	10.875,00	0,00
Amortizazioak	6.978,00	17.865,00	17.865,00
Zentro medialen banaketa	2.124,74		
Egitura zentroen banaketa	26.407,00	29.498,00	29.792,98
Interesak		854,00	
KOSTUAK GUZTIRA	106.876,47	116.368,00	116.490,49
LORTU DEN EDO			
AURREIKUSTEN DEN BILKETA	65.721,37	58.799,27	55.000,00
ESTALDURA MAILA	61,49	50,53	47,21

3.3. BAZTARTXO ARETOAN UDAL ZERBITZUAK EMATEKO EDO UDAL JARDUERAK EGITEKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA:

Tasa honetan ez da igoerarik aurreikusten.

Honez gain familia ugariak 2018. Urtean tarifa bereziak edukiko dituzte. Tarifa hauek ezartzeko Sarrera erosterakoan familia ugariko titulua aurkeztu beharko da.

Era honetara arautzen dira 2018. Urterako Baztartzoko tasak:

ZERBITZUAK EMAN EDO JARDUERAK BURUTZEA BAZTARTXO ARETOAN

ZINEMA

	PREZIO ARRUNTA	PREZIOA FAMILIA UGARIANTZAT
Sarrera orokorra	5€	4€
Ikusleren eguna, haur zinema eta zineforum	3€	2,50€
5 sarrerako bonoa	15€	15€
10 sarrerako bonoa	30€	30€
Bonoaren erabilpena pertsonala da eta ezin da eskualdatu. Erabilpen data: 2018/12/31 arte 5 sarrerako bonoa soilik irailaren 1 etik aurrera egongo da eskuragai eta honen erabilpena irailatik abendura bitartean izango da.		



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Familia ugarien prezio murriztua ezartzeko, familia ugariko indarrean dagoen txartela aurkeztu beharko da.		

ZUZENEKO IKUSKIZUNAK

	PREZIO ARRUNTA	PREZIOA FAMILIA UGARIENTZAT
Profesionalen ikuskizunetarako, amateurren ikuskizunetarako edo hirugarrenek antolatutako ikuskizunetarako sarreraren prezioa, kopuru hauen artean:	0-30€	0-30€

Udal jabego publikoaren erabilera mugatua edo aprobetxamendu bereziagatik aplikatzen diren tasak

Udal jabego publikoaren erabilera mugatua edo aprobetxamendu bereziagatik aplikatzen diren tasei dagokienez, azterketa 2010ko ekitaldiari dagozkion prezioekin egin da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 24.1. artikulua xedatutakoaren arabera. Artikulu honek ondokoa ezartzen du: udal jabego publikoaren erabilera mugatua edo aprobetxamendu bereziagatik aplikatzen diren tasen zenbatekoa honela finkatuko da: a) Orokorrean, erreferentzia gisa hartuz erabilera edo aprobetxamendu horretatik eratorritako erabilgarritasunak merkatuan izango lukeen balioa, ukitutako ondasunak jabari publikokoak izango ez balira.

Toki entitateari dagokion kontraprestazioa da, partikular batek jabari publikoko lursailak era mugatuan erabiltzea. Okupazioaren merkatuko balioa edo eratorritako erabilgarritasuna lortzeko, antzeko ezaugarriak eta egoera bera duen lursail bat eskuratzeko beharrezkoa den kapitalaren ordainketak ekarriko lukeen kostu finantzarioa kalkulatu behar da, eta hori lursail horrek merkatuan duen alokairu prezioarekin bat etorriko da. Horrela lortutako balioa aukera koefiziente batzuk aplikatuz zuzentzen da, obra materialekin egindako okupazioa zehatzen dutenak, jabari publikoaren erabiltzailearen mesederako direlako soilik, eta gainerako herritarren kalterako, eta gainerako herritarrei balio erantsiren bat eskaintzen dieten erabilera mugatuen alde egiten dute.

Bestalde, okupazio horien kudeaketak duen kostua aztertuz, udal langileen arduraldiaren ikuspegitik eta egitura eta elementu orokorren erabileraren ikuspegitik, ondorioztatzen da, tasaren zenbatekoaren % 15 kontzeptu hori estaltzera bideratuko litzatekeela, eta gainerako % 85, bat etorriko litzatekeela jabari publikoaren erabilera mugatuarengatik konpentsazioarekin. Hori hala da salbuespen batekin: "Obra materialekin, hesiekin eta abarrekin bide publikoa okupatzeagatik aplikatzen den tasa". Honek udaltzainei egunero arduraldi handia dakarkie, eta ondorioz, kasu honetan, beharrezkoa da tasaren % 30 zerbitzu horren



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

kudeaketa gastua ordaintzeko erabiltzea. Bestalde, "Merkatuaren tasaren" kasuan, zerbitzu eta garbiketa langileei arduraldi handia dakarkie eta % 20 bideratzen da horretarako. Halaber, zirkulazio erreia mozteagatik aplikatzen den tasa ere salbuesten da arau orokorretik. Tasa hori kalkulatzeko Udaltzaingoaren eguneko eta m2-ko kostua gehitzen da: 4 ordu/eguneko; 2010eko ordu kostua: 18,37.

Adierazitako irizpideen arabera, ondoko eranskina egin da:

JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA MUGATUARENGATIK APLIKATZEN DEN TASA:

	MAILAK	TARIFA 2010 ORDEN.	DENBORA	UNITATEA M2	PREZIOA M2 EGUNA
Pasabidea duen ibilg. sarrera	A) IBILGAILU 1	53,54	urtea	6	0,02
	B) 2 IBILGAILU	80,66	urtea	6	0,04
	C) 3 IBILGAILU	100,44	urtea	6	0,05
	D) 4 ETA 10 IBILGAILU ARTEAN	190,19	urtea	6	0,09
	E) 11 ETA 30 IBILGAILU ARTEAN	272,17	urtea	6	0,12
	F) 30 IBILGAILUTIK GORA	355,90	urtea	6	0,16
	Pasabiderik gabeko ibilg. sarrera	A) IBILGAILU 1	40,78	urtea	6
B) 2 IBILGAILU		57,57	urtea	6	0,03
C) 3 IBILGAILU		73,52	urtea	6	0,03
D) 4 ETA 10 IBILGAILU ARTEAN		123,19	urtea	6	0,06
E) 11 ETA 30 IBILGAILU ARTEAN		165,07	urtea	6	0,08
F) 30 IBILGAILUTIK GORA		223,66	urtea	6	0,10
Zamalanak egiteko espazio erreserba			38,70	urtea	6
Lurzorua, zorupea edo hegalkinak andel eta tangekin okupatzea		49,55	urtea	1	0,14
Mahaiak, mahaitxoak		76,48	urtea	4	0,05
Arroilak edo lubakiak irekitzea	Ez da zeharbideetan gertatzen	3,23	eguna	2	1,62
	Zeharbideetan gertatzen bada	6,46	eguna	2	3,23
Salmenta ibiltariaren merkatua		0,94	eguna	1	0,94
Bide publikoa hesi, aldamiokekin okupatzea		0,57	eguna	1	0,57
Bide publikoa obra hondakinen edukiontziekin okupatzea		3,51	eguna	4	0,88
Zirkulazio erreia moztea		91,47	eguna	20,8	4,39



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Bide publikoa negozioa osatzen duen zati moduan erabiltzea	0,28	eguna	1	0,28
Bide publikoa igogailuekin okupatzea	0,03	eguna	1	0,03

URTEKO ALOKAIRUA. JABARI PUBLIKOKO ONDASUNAK ERABILTZEAREN BALIOA.				
	KALEEN MAILA			
	1.	2.	3.	Bakarra
Merkataritza lokal baten alokairua, m2-ko prezioa	126,24	73,56	54,6	126,24
Merkataritza lokal baten alokairua hilabeteko, prezioa m2-ko	10,52	6,13	4,55	10,52
Merkataritza lokal baten alokairua eguneko, prezioa m2-ko	0,35	0,02	0,16	0,35

JABARI PUBLIKOAREN APROBETXAMENDU EDO ERABILERA MUGATUAREN MERKATUKO BALIOA										
Kontzeptua	MAILAK	APROB. PREZIOA M2				Auk. koef.	ZUZEND. APROB. PREZIOA M2			
		Kaleen maila					Kaleen maila			
		1.	2.	3.	bakarra		1.	2.	3.	bakarra
Pasabidea duen ibilg. sarrera										
	A) IBILGAILU 1				0,35	0,50				0,175
	B) 2 IBILGAILU				0,35	0,50				0,175
	C) 3 IBILGAILU				0,35	0,50				0,175
	D) 4 ETA 10 IBILGAILU ARTEAN				0,35	0,50				0,175
	E) 11 ETA 30 IBILGAILU ARTEAN				0,35	0,50				0,175
	F) 30 IBILGAILUTIK GORA				0,35	0,50				0,175
Pasabiderik gabeko ibilg. sarrera										
	A) IBILGAILU 1				0,35	0,50				0,175
	B) 2 IBILGAILU				0,35	0,50				0,175
	C) 3 IBILGAILU				0,35	0,50				0,175
	D) 4 ETA 10 IBILGAILU ARTEAN				0,35	0,50				0,175
	E) 11 ETA 30 IBILGAILU ARTEAN				0,35	0,50				0,175
	F) 30 IBILGAILUTIK GORA				0,35	0,50				0,175
Zamalanak egiteko espazio erreserba					0,35	0,50				0,175
Lurzorua, zorupea edo hegalkinak andel eta tangekin okupatzea					0,35	1,20				0,42
Mahaiak, mahaitxoak					0,35	0,70				0,245
Arroilak edo lubakiak irekitzea										
	Ez da zeharbideetan gertatzen				0,35	1,20				0,42



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

	Zeharbideetan gertatzen bada			0,35	1,20		0,42
Salmenta ibiltariaren merkatua				0,35	1,20		0,42
Bide publikoa hesi, aldarmioekin okupatzea				0,35	1,40		0,49
Bide publikoa obra hondakinen edukiontziekin okupatzea				0,35	1,60		0,56
Zirkulazio erreia moztea				0,35	1,60		0,56
Bide publikoa negozioa osatzen duen zati moduan erabiltzea				0,35	1,20		0,42
Bide publikoa igogailuekin okupatzea				0,35			0,35

JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA MUGATUAREN TASEN KOSTUA

KONTZEPTUA	MAILAK	KALEEN MAILA	ORDEN. TARIFA	APROB. BALIOA	JARD. BALIOA	BALIOA GUZTIRA
Pasabidea duen ibilg. sarrera	A) IBILGAILU 1		0,02	0,175	0,026	0,201
	B) 2 IBILGAILU		0,04	0,175	0,026	0,201
	C) 3 IBILGAILU		0,05	0,175	0,026	0,201
	D) 4 ETA 10 IBILGAILU ARTEAN		0,09	0,175	0,026	0,201
	E) 11 ETA 30 IBILGAILU ARTEAN		0,12	0,175	0,026	0,201
	F) 30 IBILGAILUTIK GORA		0,16	0,175	0,026	0,201
	Pasabiderik gabeko ibilg. sarrera	A) IBILGAILU 1		0,02	0,175	0,026
B) 2 IBILGAILU			0,03	0,175	0,026	0,201
C) 3 IBILGAILU			0,03	0,175	0,026	0,201
D) 4 ETA 10 IBILGAILU ARTEAN			0,06	0,175	0,026	0,201
E) 11 ETA 30 IBILGAILU ARTEAN			0,08	0,175	0,026	0,201
F) 30 IBILGAILUTIK GORA			0,10	0,175	0,026	0,201
Zamalanak egiteko espazio erreserba				0,02	0,175	0,026



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Lurzorua, zorupea edo hegalkinak andel eta tangekin okupatzea			0,14	0,42	0,063	0,483
Mahaia, mahaitxoak			0,05	0,245	0,049	0,294
Arroilak edo lubakiak irekitzea	Ez da zeharbideetan gertatzen		0,54	0,42	0,126	0,546
	Zeharbideetan gertatzen bada		0,63	0,42	0,210	0,630
Salmenta ibiltariaren merkatua			0,94	0,42	0,168	0,588
					GARBIKETA M2 ETA EGUNEKO	1,620
Bide publikoa hesi, aldamiokin okupatzea			0,57	0,49	0,147	0,637
Bide publikoa obra hondakinen edukiontziekin okupatzea			0,88	0,56	0,308	0,868
Zirkulazio erreia moztea			4,39	0,56	0,308	0,868
					UDALTAING. KOSTUA	3,530
Bide publikoa negozioa osatzen duen zati moduan erabiltzea			0,28	0,42	0,126	0,546
Bide publikoa igogailuekin okupatzea			0,03	0,35		0,350

3.4. IBILGAILUAK ETA GURDIAK ERAIKINETARA ETA ORUBEETARA SARTU AHAL IZATEKO ESPALOI GAINEAN DAUDEN SARBIDEENGATIK EDO PASABIDEENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

Tasa hau IBILGAILUAK ERAIKINETARA ETA ORUBEETARA SARTU AHAL IZATEKO ESPALOI GAINEAN DAUDEN SARBIDEENGATIK EDO PASABIDEENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA izatea proposatzen da .

3.5 TUTORETZAKO ETXEBIZITAK

Tutoretzako etxebizitzaren tasak ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretura egokituko direla zehazten da.

Azkoitia, 2017ko irailaren 20an
Kontuhartzaileak



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

4.1 HIRI LURREN BALIO-GEHIKUNTZAREN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA:

Ordenantzaren 3. Artikuluak Zerga-Egitatea arautzen du.

Artikulu honi hirugarren azpiatala eransten zaio, hiri lurren balio gehikuntzaren zehaztapena arautzen duena hain zuzen. Eranspen hau 2/2017 Foru Dekretu Araua, martxoaren 28koa, hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga aldatzen duenaren eraginez gertatzen da, konstituzio Auzitegiaren 2017ko otsailaren 16ko epaiarekin bat etortzeko.

Foru dekretu honek artikulu bakarra du eta bertan balio gehikuntza soilik irabazia dagoenean arautzen du era honetara:

Artikulu bakarra. Hiri-lurren balio gehikuntzaren zehaztapena.

1. Uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauak erregulatzen duen hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren betebeharrak tributario nagusia sortu dadin, beharrezkoa izango da terreneen balio gehikuntza bat gertatzea haien jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzeagatik edo terreno horien gaineko jabaria mugatzen duen edozein gozamen eskubide erreal eratu edo eskualdatzeagatik.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, terreneen balio gehikuntza zehazteko bi balio hauek alderatuko dira: terrenearen eskurapen balioa edo, dagokion kasuan, jabaria mugatzen duen gozamen eskubide errealaren eraketa edo eskurapenari dagokiona, eta terrenearen eskualdaketa balioa edo, dagokion kasuan, jabaria mugatzen duen gozamen eskubide errealaren eraketa edo eskualdaketaari dagokiona.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren balioak izango dira kontuan hartuko direnak edo, dagokion kasuan, aintzat hartu beharko liratekeenak, terreneen jabetza eskualdatzea edo haien jabaria mugatzen duen edozein gozamen eskubide erreal eratu edo eskualdatzea kasuan kasuko tributuekin zergapetzearen ondorioetarako.

Apartatu honetan hizpide diren balioei ez zaie gehituko inolako gasturik, hobekuntzarik edo beste ezein kontzepturik, eta ez dira eguneratuko denbora igarotzeagatik.

2. apartatu honetan terreneen balio gehikuntza zehazteko erreferentzia gisa aipatzen diren balioetan ez bada berariaz bereizten zer balio den egozgarria eraikuntzari eta zein lurzoruari, erreferentziatzat hartuko da zer proportzio duten lurzorua balioak eta eraikuntza balioak zergaren sortzapenaren unean indarrean dagoen balio katastralarekiko.

3. Data hauek hartuko dira kontuan aurreko 2. apartatuan aipatzen diren balioak zehazteko: zein egunetan eskuratu den terrena edo, dagokion kasuan, eratu edo eskuratu den jabaria mugatzen duen gozamen eskubide erreal, eta zein egunetan eskualdatu den terreno hori edo, dagokion kasuan, eratu edo eskualdatu den jabaria mugatzen duen gozamen eskubide erreal.

4. Terrenoak ez badu balio gehikuntzarik artikulu honetan xedatutakoaren arabera, gerora egin daitezkeen eskualdaketen ondorioetarako kontuan hartuko dira etorkizuneko eskualdatzaileak terrena eskuratu eta eskualdatzean terreneari dagozkion balioak.

5. Nahiz eta terreneok ez izan balio gehikuntzarik artikulu honetan adierazitakoaren arabera, beti aurkeztu beharko da uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauak, Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergarenak, 7. artikuluan arautzen duen aitortpena.

6. Terreneok balio gehikuntza baldin badute artikulu honetan xedatutakoaren arabera, zerga oinarria, zerga kuota eta hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren gainerako elementuak zehaztu beharko dira uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauak xedatutakoari jarraituz.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Beraz, Ogasuna, barne antolakuntza, pertsonala, kontratazioa, sustapen ekonomikoa eta merkataritza batzordeak, 2017ko Irailaren 21ean eginiko bileran honako irizpena proposatzen dio Udal Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENENGOA.- 2018rako Ordenantza fiskalak aldatzea, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraina edukiz, aldatutako testuak honela geratzen direlarik:

1.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILIGAILUEN GAINEKO ZERGAREN KUOTA ZEHAZTEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA

BAT 1.-6.3 atala aldatzen da eta honela gelditzen da idatzita:

6.3. Zergaren kuotan %75 arteko hobaria ezartzen da, bost plaza edo gehiago dituen eta 16 zaldi fiskaletik beherako potentzia duen turismo bakar baterako familian, baldin eta ibilgailuaren titularra, indarreko legeriak familia ugartzat jotzen duen familia bateko kidea bada.

Hobariaren ehunekoa zergaren sortzapen unean erabakiko da, legez aplika daitekeen familia ugariaren kategoriaren arabera, berori behar bezala egiaztatuta betiere, eta turismo familiarraren potentzia fiskala aintzat hartuta, honako taula honetan adierazitakoaren arabera:

POTENTZIA FISKALA	KATEGORIA BEREZIKO FAMILIA	KATEGORIA OROKORREKO FAMILIA
12 zaldi fiskaletik beherakoa	% 75	% 50
12tik 13,99ra bitartekoa	% 65	% 40
14tik 15,99ra bitartekoa	% 55	% 30

Hobariak familia ugariaren txartelaren iraungipen-epeak agintzen duen iraupena izango du gehienez, eta familia ugari bakoitzeko, ibilgailu bakar batek jasoko du hobaria.

Eskaera hau ez da bateragarria izango, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko Zergan ibilgailu berari egindako beste ezen hobari fiskalekin.

Artikulu honetan arauturiko hobarien eskaerak ziurtagiriak kobratzeko borondatezko epea amaitu arte egin ahal izango dira. Geroago egiten diren eskaerek eragina izango dute eskaera egin den zergaldiaren hurrengo zergalditik aurrera.

Honez gain, atal honetan jasotako hobariak onartzeko Udal zerga-bilketan **familia ugariaren kide guztiak** ez du zorrik eduki behar.

2.-- Aldaketak sartzen dira Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren **eranskinean**, eta honela geratzen da idatzita:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ERANSKINA

Bilkura-data: 2017ko irailaren 27an

<u>Potentzia eta ibilgailu-mota</u>	<u>Kuota eurotan.</u>
	2018
A) TURISMOAK	
9hp fiskaletik behrakoak	41,09
9hp fiskaletik 11,99 hp-erakoak	84,49
12hp fiskaletik 13,99 hp -erakoak	140,81
14hp fiskaletik 15,99 hp-erakoak	197,14
16hp fiskaletik 19,99 hp-erakoak	256,19
20hp fiskaletik aurrera	329,80
B) AUTOBUSAK	
21 plazatik beherakoak	195,17
21 plazatik 50 plaza bitartekoak	277,97
50 plazatik gorakoak	347,46
C) KAMIOIAK	
1000kg tik beherako zama erabilgarria dutenak	99,06
1000kg eta 2999kg bitarteko zama erabilgarria dutenak	195,17
2999kg baino gehiago eta 9999 kg bitarteko zama etabilgarria dutenak	277,97
9999kg tik gorako zama etabilgarria dutenak	347,46
D) TRAKTOREAK	
16 zaldi fiskaletik beherakoak	41,40
16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak	65,06
25 zaldi fiskaletik gorakoak	195,17
E) TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEK ATAI OAN ERAMANDAKO ATAI OAK ETA ERDI ATAI OAK	
1000kg baino gutxiago eta 750 kg gorako zama erabilgarrikoak	41,40
1000kg eta 2999kg bitarteko zama erabilgarrikoak	65,06
2999 kg tik gorakoak	195,17
F) BESTE IBILGAILU BATZUK	
Ziklomotoreak	10,36
125 zentimetru kubiko bitarteko motozikletak	10,36
125etik 250 zentrimetro kubikora bitarteko motozikletak	17,74
250etik 500 zentimetro kubikora bitarteko motozikletak	35,50
500etik 1000 zentimetro kubikora bitarteko motozikletak	70,97
1000 zentimetro kubikotik gorako motozikletak	135,31



2.- ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN KUOTA ZEHAZTEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

BI- 1.-Aldaketak sartzen dira Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren 7 b) atalean eta honela gelditzen da:

b) Subjektu pasiboak familia ugariko titularrak badira, hobari bat izango dute zergan, seme-alaben kopuruari eta etxebizitzaren metro koadro erabilgarriei erreparatuta:

Metro koadro erabilgarriak	3 seme-alaba	4 seme-alaba	5 seme-alaba
90 metro arte	%25	%50	%75
90 metro baino gehiago eta 120 arte	%10	%25	%40

Azaldutako hobariak soilik ohiko bizilekuari aplikatuko zaizkio; halaber, titularrek ezingo dira beste ondasun higiezin baten jabe izan, beti ere ondasun honek 42.009,32 €tik gorako balio katastrala badu.

Urtarrilean eskatu beharko zaio hobaria udalari, eta eskaerarekin batera familia ugariko titulua aurkeztu beharko da.

Familia ugarien kideetako batek elbarritasun bat edo lan egiteko ezintasun bat aitorturik izanez gero, familia unitateko umeen kopuruaren arabera egokitu lekiokkeen hurrengo mailako hobaria baliatu ahal izango du.

Udalak aztertuko du familia ugariaren kide guztiak ohiko etxebizitzan erroldatuak dauden urtarilaren batean. Honez gain, ziurtatuko da **familia ugariaren kide guztiak** udal zorrik ez duela.

2.-Aldaketak sartzen dira Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren eranskinean, eta honela geratzen da idatzita:

Zerga-tasa hauek aplikatuko dizkie Ondasun Higiezin gainerako Zergak hiri-ondasunei:

Ehuneko 0,2332 bizitegi-izaerako hiri-ondasunei.

Ehuneko 0,5599 industria-izaerako hiri-ondasunei.

Ehuneko 1,0594ko zerga-tasa aplikatuko die Ondasun Higiezin gainerako Zergak landa-ondasunei.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

3.- JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ZERGAREN KUOTA ZEHAZTEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

HIRU- Aldaketak sartzen dira Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren 2.eranskinean, eta honela geratzen da idatzita:

2.ERANSKINA

Finkatutako kuota minimoen gehikuntzako koefiziente bakarra: **2,2000**

4.-HIRI-LURREN BAIO-GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

LAU- Atal berria eransten zaio 3. Artikuluari eta honela geratzen da idatzita:

II. ZERGA-EGITATEA

3. artikulua.

1.- Hiri-izaerako lursailen batek izan dezakeen balio gehikuntza da zerga egitatea, lursailaren jabetza edozein tituluren bidez transmititzen denean edo haren gainean jabetza mugatzen duen edozein gozamen-eskubide erreal eratzten edo transmititzen denean, gehikuntza hori ageri jartzen bada.

2.- Zergaren eragin-esparruan, hiri-lurrak izango dira:

- Hiri-lurzorua; urbanizagarria; urbanizagarri programatua; urbanizagarri programatu gabea, hari eragiten dion hirigintza-jarduerako programa bat onartzen denetik aurrera; bide zolatuak edo espaloi zintarriak dituzten lurrak, horrez gain, estolderiak, ur-hornidura, argindar-hornidura eta argiteria publikoa badute; eta hiri-izaerako eraikinek okupatutako lurrak.

Hiri-lur izango dira, halaber, nekazaritza-legediak araututakoa urratuz zatitutako lurrak; betiere, zatiketa horrek haren nekazaritza-erabilera desitxuratzen badu; hala ere, horrek ez du lur horien landa-izaera aldatzen, zerga honen aplikaziotik kanpora.

3.-Hiri-lurren balio gehikuntzaren zehaztapena.

1. Uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauak erregulatzen duen hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren betebeharrak tributario nagusia sortu dadin, beharrezkoa izango da terrenoen balio gehikuntza bat gertatzea haien jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzeagatik edo terreno horien gaineko jabaria mugatzen duen edozein gozamen eskubide erreal eratu edo eskualdatzeagatik.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, terrenoen balio gehikuntza zehazteko bi balio hauek alderatuko dira: terrenoaren eskurapen balioa edo, dagokion kasuan, jabaria mugatzen duen gozamen eskubide errealaren eraketa



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

edo eskurapenari dagokiona, eta terrenoaren eskualdaketa balioa edo, dagokion kasuan, jabaria mugatzen duen gozamen eskubide errealaren eraketa edo eskualdaketa dagokiona.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren balioak izango dira kontuan hartuko direnak edo, dagokion kasuan, aintzat hartu beharko lirartekeenak, terrenoen jabetza eskualdatzea edo haien jabaria mugatzen duen edozein gozamen eskubide erreal eratu edo eskualdatzea kasuan kasuko tributuekin zergapetzearen ondorioetarako.

Apartatu honetan hizpide diren balioei ez zaie gehituko inolako gasturik, hobekuntzarik edo beste ezein kontzepturik, eta ez dira eguneratuko denbora igarotzeagatik.

2. apartatu honetan terrenoen balio gehikuntza zehazteko erreferentzia gisa aipatzen diren balioetan ez bada berariaz bereizten zer balio den egozgarria eraikuntzari eta zein lurzoruari, erreferentziatzat hartuko da zer proportzio duten lurzoruaren balioak eta eraikuntza balioak zergaren sortzapenaren unean indarrean dagoen balio katastralarekiko.

3. Data hauek hartuko dira kontuan aurreko 2. apartatuan aipatzen diren balioak zehazteko: zein egunetan eskuratu den terrenoa edo, dagokion kasuan, eratu edo eskuratu den jabaria mugatzen duen gozamen eskubide erreal, eta zein egunetan eskualdatu den terreno hori edo, dagokion kasuan, eratu edo eskualdatu den jabaria mugatzen duen gozamen eskubide erreal.

4. Terrenoak ez badu balio gehikuntzarik artikulua honetan xedatutakoaren arabera, gerora egin daitezkeen eskualdaketen ondorioetarako kontuan hartuko dira etorkizuneko eskualdatzaileak terrenoa eskuratu eta eskualdatzean terrenoari dagozkion balioak.

5. Nahiz eta terrenoek ez izan balio gehikuntzarik artikulua honetan adierazitakoaren arabera, beti aurkeztu beharko da uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauak, Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergarenak, 7. artikuluan arautzen duen aitorpena.

6. Terrenoek balio gehikuntza baldin badute artikulua honetan xedatutakoaren arabera, zerga oinarria, zerga kuota eta hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren gainerako elementuak zehaztu beharko dira uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauak xedatutakoari jarraituz.

BOST- Aldaketak sartzen dira Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren ERANSKINAREN II atalean, eta honela geratzen da idatzita:

ERANSKINA

Bilkura-data: 2017ko irailak 27

I. EHUNEKOEN TAULA.

EPEA

URTEKO EHUNEKOA



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- a) 1 urtetik 5era..... %3,1
- b) 10 arte%2,8
- c) 15 arte%2,7
- d) 20 urte arte%2,7

II.TARIFA

ZERGA-TASA

%6,9550

**5.- UDAL-JABARI PUBLIKOA OKUPATZEAGATIKO TASA
ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.**

SEI.- Aldaketak sartzen dira tasa arautzen duen Ordenantza fiskalaren ERANSKINA, eta honela geratzen da idatzita:

**1.- IBILGAILUAK ERAIKINETARA ETA ORUBEETARA SARTU AHAL IZATEKO
ESPALOI GAINEAN DAUDEN SARBIDEENGATIK EDO PASABIDEENGATIK.**

	2018ko tarifa
1. TARIFA, ibi iraunkor edota erreserbaturik dagoen espazio baimenduarekin:	
a) Ibilgailu 1	33,43
b) 2 ibilgailu	62,96
b) 3 ibilgailu	84,50
b) 4 eta 10 ibilgailu bitartean	182,22
e) 11 eta 30 ibilgailu bitartean	271,47
f) 30 ibilgailu baino gehiago	362,63
2. TARIFA, ibi iraunkorrik gabe:	
a) Ibilgailu 1	19,54
b) 2 ibilgailu	37,82
b) 3 ibilgailu	55,18
b) 4 eta 10 ibilgailu bitartean	109,27
b) 11 eta 30 ibilgailu bitartean	154,87
f) 30 ibilgailu baino gehiago	218,66
Goian adierazitakoaz gain, kopuru hau ere ordainduko dute: sarreraren zabalerak, espaloiarekin batzen den tokian, dituen metro linealen kopurua edo zatikia honako kopuruarekin biderkatzean lortzen dena:	8,28



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2.- IBILGAILUAK ERAIKINETARA ETA ORUBEETARA SARTU AHAL IZATEKO BIDE PUBLIKOAREN GAINEAN DAUDEN SARBIDEENGATIK EDO PASABIDEENGATIK.

2.1- Tarifa kalkulatzeko, sarrerak zabaleran hartzen dituen metro linealak edo metro lineal zatiak kopuru hauekin biderkatu beharko dira

Ibi iraunkorrek edota baimenduriko espazio erreserbatuarekin..... 14,05 euro.
Ibi iraunkorrik gabe 8,28 euro

2.2.- Erabilera publikoko bideetan merkantziaren zamalanetarako espazioa gordetzeko eskatu duten partikularrek.

14,05 euro metro linealeko edo metro lineal zatiko urtean.

3.- ERABILERA PUBLIKOKO SAILEN ZORUPEA, LURZORUA ETA HEGADA OKUPATZEAGATIK.

Erregaiak edo bestelako likidoak gordetzeko tangengatik edo deposituengatik 53,95 euro urtean m²-ko edo m² zatiko.

4.- MAHAI, MAHAITXO, AULKI, ZOLADURA, LOREONTZI, ITZALKIN EDO ANTZEKO INSTALAZIOENGATIK.

Mahai bakoitzeko kuota urtean83,27 euro.
Udako kuota maiatzaren 1etik urriaren 31.....55,51 euro.

Mahaiak ateratzeko nahitaez baimena eskatu behar da. Baimena eskatzeko epea urtarrilatik martxoaren bitartean izango da alta berriak ezik. Kasu honetan alta ematen dutenetik 3 hilabeteko epean.

Tasa ekitaldi bakoitzeko urtarrilaren 1ean sortuko da, baimen berriak ematen direnean izan ezik, horiei dagozkien tasak baimenak ematen diren egunean bertan sortuko baitira.

Udako tasa maiatzaren batean sortuko da, baimen berriak ematen direnean izan ezik, horiei dagozkion tasak baimenak ematen diren egunean bertan sortuko dira.

Baimena eskatu ezean eta mahaiak aterako balituzte ikuskapeneko txostenean azaltzen diren mahai kopuruari dagokion urteko tasa osoa likidatuko da.

Baimenean eskaturikoa beteko ez balitz, hau da, mahai kopuru gehiago aterako balute, mahai kopuru honi dagokion urte osoko tasa likidatuko da.

Taberna kanpoan kupelak edo antzekoak ezartzeagatik kupeleko..... 20,81 euro.

5.- FERIETAN ETA OSPAKIZUNETAN SALTZAILE IBILTARIEK POSTUEKIN LURZORUA OKUPATZEAGATIK.

Tarifa: Postuak eta Salmenta kasetak ibiltariak m²-ko eta eguneko izango da.....5,92 €.

Ordenantza honetan araututako kuotak urtekoak eta menderaezinak izango dira.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Ferietako Elkartek tasa honen salbuespena eduki dezake beti ere dagokion hitzarmena onartuko balitz eta bertan salbuespena justifikatuko balitz merkatuko prezioen azpiko prezioak ezarri direla erabiltzaileentzat.

6.- LAGINKETAK EDO ZANGAK IREKITZEAGATIK

1. Erabilera publiko lokaleko lursailetan –baita errepide eta gainerako bide publiko lokaletan ere– edonolako zangak, zundaketak edo zuloak ireki aurretik, kaineriak, hodieriak edo bestelako instalazioak ezartzeko eta konpontzeko, edota bide publikoko galtzadan edo espaloietan inolako konponketak egiten hasi aurretik, Udal Administrazioak fidantza bat ezartzea exijituko du, jabari publikoa bere jatorrizko egoerara ekartzeko edota egindako obrek sortutako kalteei aurre egin ahal izateko.

2. Fidantza hori jartzerakoan, honakoak hartuko dira kontuan:

- 1) Fidantza bakoitzak, soil-soilik obra bakar bati dagozkion betebeharrak bermatuko ditu.
- 2) Obra baterako lizentzia entitate bat baino gehiagok eskatzen badute, solidarioki edo mankomunatuta, fidantza hori bat eta bakarra izango da entitate guztientzako.
- 3) Fidantza dirutan edo banku-abalaren bitartez jar daiteke.

3. Fidantzaren zenbatekoa, segidako taulan adierazitako epigrafeen zenbakietan ezarritako kontzeptu eta zenbatekoen arabera kalkulatu da.

ZANGAK, ZUNDAKETAK EDO ZULOAK IREKITZEKO GORDAILUEN TAULA

ZANGAK, ZUNDAKETAK EDO ZULOAK IREKITZEKO GORDAILUAK			€/m ²
Metro karratua bere onera ekartzearen edo eraikitzearen kostua (zanga, zundaketa edo zuloaren zabalera bider luze bakoitza) €/m ²	GUZTIRA	BEZ % 21	GUZTIRA, BEZ barne
ASFALTO AGLOMERATUZKO ZOLADURA	172,00	36,12	208,12
HORMIGOIZKO HARRI BALDOSAZ EGINDAKO ZOLADURA	179,00	37,59	216,59
GRANICEM HORMIGOIZKO BALDOSAZ EGINDAKO ZOLADURA	197,00	41,37	238,37
GRANITO BALDOSAZ EGINDAKO ZOLADURA	257,00	53,97	310,97
HORMIGOIZKO GALTZADA-HARRIZ EGINDAKO ZOLADURA	197,00	41,37	238,37
LORATEGI ITXURAKO EREMUA	125,00	26,25	151,25

4. Obrak bukatu arte fidantza ez da itzuliko; hau da, fidantza ezartzearen helburua bete arte, ez da itzuliko.

5. Behin obra bukatuta, eta eskatzaileak obraren lizentzian eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu ondoren, udal zerbitzu teknikoek obra ikuskatuko dute. Eta obra hartu ondoren, hala egokituz gero, kasuan kasuko akta izenpetuko dute. Obra hartu den egunetik bi hilabete igarotakoan, jarritako fidantza itzuli egingo da. Horretarako, ordea, eskatzaileak egindako obraren aurrekontu osoaren % 5eko abala ipini beharko du, berme-epea bete arte. Azkeneko bermealdi hori 10 hilabetekoa izango da.

6. Bermealdi horretan ez bada antzeman fidantza jarri duenari lepora dakioken akatsik, edota obra tazituki hartu zen egunetik hasita urtebete igarotzean, hasieran jarritako fidantza edo aipatutako abal hori itzuli egingo da.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

7. Baldin eta eskatzaileak jabari publikoa ez badu bere jatorrizko egoerara itzuli, edota sortutako kalteak ez baditu konpondu, Udalak kasuan kasuko egikaritze-agindua emango du; eta beharrezkoa bada, ordezeko izaeraz egikarituko du, interesatuaren kontura. Azkeneko kasu horretan, fidantzaren zenbatekoa obra hori egikaritzeko erabiliko da.

LANGIKETAK EDO ZANGAK IREKITZEAGATIK

metro baterainoko zabalera duten langiketak edo zangak irekitzeagatik	
metro lineal edo metro lineal zati bakoitzeko eta egun bakoitzeko	0,60
Ustiapena zeharbide batean egiten bada	0,70

7.- HORNIKETA-ZERBITZUETAKO ENPRESEK UDAL-BIDE PUBLIKOETAKO LURZORUA, ZORUPEA ETA ZORUGAINA HAIK SOILIK ERABILTZEAGATIK EDO ERA BEREZIREN BATEAN USTIATZEAGATIK.

Enpresa horiek udalerrian lortzen duten urteko fakturazioaren sarrera gordinen %1,5 ordaindu beharko dute.

8.- UDAL-FRONTOIA ERABILTZEAGATIK

Kantxa alokatzeagatik, orduko	10,50
Dutxako eta pertsonako	2,56
Probalekuak alokatzeagatik, ekitaldiko	
..-karrejo aldaketa badago.....	658,70 € eguneko
..-Karrejo aldaketarik ez badago	99,22 € eguneko

Frontoia jaialdiak ospatzeko eta halakoetarako alokatzeagatik, eguneko eta eskaerako 408,01 euro.

Irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta entitateek eta erakunde publikoek ez dute ordaindu beharrik izango.

GUREA FRONTOIAN ZERBITZUA EMATEAGATIK EDO OKUPATZEAGATIK IKUSKIZUNAK ZUZENEAN

Sarrerako prezioa ikuskizunak ikusteko.....0-50 euro bitartean

9.- INSAUSTI JAUREGIA ETA SAN MARTINGO ONDAREGUNA EZKONTZAK EDO HILETAK OSPATZEKO ERABILTZEAGATIK

Kuota..... 82,40 euro.

10.- KULTUR ETXEKO ARETO NAGUSIA ALOKATZEAGATIK

Eguneko eta eskaerako 79,10 euro.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

11.- KULTUR ETXEKO GAINERAKO ARETOAK ALOKATZEAGATIK

Eguneko eta eskaerako 39,55 euro.
Irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta entitateek eta erakunde publikoek ez dute ordaindu beharrik izango.

12.- INSAUSTI JAUREGIKO GAINERAKO ARETOAK ERABILTZEAGATIK

Eguneko eta eskaerako 69,63 euro.
Ikus-entzunezko ekipoa alokatzeagatik 34,82 euro
Irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta entitateek eta erakunde publikoek ez dute ordaindu beharrik izango.

13.- BAZTARTXO ZINEMA-ARETOA ALOKATZEAGATIK

Eguneko eta eskaerako 395,51 euro.
Irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta entitateek eta erakunde publikoek ez dute ordaindu beharrik izango kultur etxea, Insausti Jauregia eta Baztartxo zinemaren erabileragaitik.

14.- SALTZAILE IBILTARIEK ZERBITZUAK JARTZEAGATIK AZOKETAN, AZOKA TXIKIETAN ETA ABARRETAN.

Metro karratuko edo okupazio-zatiko, 1,03 euro egunean.

Asteko merkatuari dagokion kuota hiru hilez behingoa izango da eta aurrez ordaindu behar da.

Hiruhilekoren batean emakidaduna ez bada asteko azokara azaltzen lau astez jarraian, galdu egingo du emakida.

15.-AZOKAKO POSTUAK

Hilabetean ordaindu beharrekoa

Mari Carmen Sorazu Otamendi.....	31,36
Milagros Gorostegui Alberdi.....	18,83.-
Victor Juan Larrañaga Aramendi	62,20.-
José Antonio Alberdi Zubizarreta.....	62,20.-

16.- BIDE PUBLIKOA OKUPATZEAGATIK OBRA-HONDAKINETARAKO KONTAINERREKIN, ALDAMIOEKIN EDO ALDI BATERAKO ZIRKULAZIOA OZTOPA DEZAKETEN BESTELAKO INSTALAZIO EDO ELEMENTUEKIN

m²-ko eta okupazio-eguneko.....0,64
Kontainer bakoitzeko egunean3,83



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

17.- JABARI PUBLIKOA IGOGAILUAK, ELEMENTO FINKOAK EDO ANTZEKOAK IPINITA OKUPATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

m²-ko eta eguneko0,03 €

18.- BIDE PUBLIKOA NEGOZIOAREN OSAGARRI BEZALA ERABILITA, LOKAL EDO ESTABLEZIMENDU BARRUTIK BERTAN ZUZENEAN EDOZEIN SALGAI SALTZEKO LURZORUAREN APROBETXAMENDUA EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

m²-ko edo zatikiko eta eguneko 0,31 €

Udaleko jabari publikoaren erabilpen pribatiboa edo ustiapen berezian datza zerga egitea. Zerga egitea ematen da bide publikoa onbidearen atal edo osagai moduan erabiltzen denean gaiak saltzeko beti ere behin behineko izaeran duten elementu edota instalazio desmuntagarriak erabiltzen direnean.

19 .- KALEAK IXTEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

A) Errei bat ixtea, egun erdiz (goizez edo arratsaldez)	49,80
B) Bi errei ixtea, egun erdiz (goizez edo arratsaldez)	99,59

Ez da tasa ordaindu behar izango errei bat itxi behar bada azpiegituretan edo erabilera orokorreko ondasunetan eragina duen obra bat gauzatzeko.
Tasa ordaintzetik salbuesita daude erakunde publikoak eta irabazteko asmorik gabeko elkarteak eta erakundeak.

20.- JABARI PUBLIKOTIK ERABILI BEHAR DIREN LOKALETAN KUTXAZAIN AUTOMATIKOAK ETA SALGAIK EMATEN DITUZTEN MAKINAK IPINITA LURZORU PUBLIKOA HARTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

2 m ² -ko azalera kontuan hartuko da jabari publikotik erabili behar diren lokaletan ipinitako kutxazain automatiko bakoitzeko eta salgaiak ematen dituen makina bakoitzeko.	
Urteko kuota	222,11

21.-UDAL JABARI PUBLIKOA OKUPATZEAGATIKO TASA: BARATZA EKOLOGIKOEN ERABILPENAREN LAGAPENA

Baratza ekologikoen erabileraren lagapena egitea denean zerga egitea ematen da udal jabari publikoa erabiltzen delako era pribatiboan edota aprobetxamendu bereziaz.

Metro karratuko edota okupazio zatiko, eguneko: 0,0024 €

Metro karratuko edota okupazio zatiko hileko: 0,073 €

Kuota baratza hileko (67m²): 5,08 €



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Urteko tasa ekitaldi bakoitzeko urtarrilaren 1ean sortuko da, lagapen berriak ematen direnean izan ezik, horiei dagozkien tasak lagapena ematen den egunean bertan sortuko baita.

Urteko tasa likidazio bakarrean urtarrilean kitatuko da.

22.- UDAL JABARI PUBLIKOA OKUPATZEAGATIKO TASA ZIRKUAK, IKUSKIZUNAK EDO ANTZEKOAK DIRENEAN.

Udaleko jabari publikoaren erabilpen pribatiboa edo ustiapen berezian datza zerga egitatea. Zirkuak, ikuskizunak edo antzekoak direnean Udal jabari publikoa okupatzen dutenak edota ustiapen berezia lortzen dutenean

Udaleko jabari publikoaren erabilpen pribatiboa edo ustiapen bereziarengatiko tasa, zerga egitatearen izaeraren arabera, erabilpen pribatiboa edo ustiapen berezia hasten denean sortuko da, zenbateko osoa edo partzialaren gordailua eskatu daitekeelarik, edo jarduera edo espedientea hasiko duen eskera aurkezten denean, berau, dagokion ordainketa egin arte, gauzatuko edo bideratuko ez delarik.

Metro karratuko edota okupazio zatiko egunean: 0,15 €

Irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta entitateek eta erakunde publikoek ez dute ordaindu beharrik izango

6.- ZERBITZU PUBLIKOAK EMAN ETA JARDUERAK EGITEAGATIKO TASA ARAUTZEKO ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA

ZAZPI.- Aldaketak sartzen dira tasa arautzen duen Ordenantza fiskalaren ERANSKINA, eta honela geratzen da idatzita:

1.- HIRIGINTZAKO BAIMENAK EMATEA:

a) Izapidetzeko proiektuaren beharrik ez duten obrak	43,09
b) Dagokion elkargoak ikus-onetsitako proiektua duten obrak, 18.000 euroko edo gehiagoko aurrekontua badute	415,32
c) 18.000 eurotik gorako obrako aurrekontuko proiektua duten obrak	691,01

2.- OBRA-JAKINARAZPENARI DAGOKION TASA

Tasaren kuota 43,09 €

Izapidetzeko proiekturik behar ez duten obra-lizentziak emateari dagokion tasa du. Tasa honen ordainazpen-eskubideetarako, obra-jakinarazpena kontzeptuaren barruan sartzen dira barne-espazioak, egiturazko elementuak edo kanpoko fatzadak aldatzen ez dituzten eraberritze-obrak eta sukaldea eta komunak berritzeko lanak.

Obra-jakinarazpena kontzepturik kanpo daude Monumento Multzoko (hirigune historikoa) eraikinetan egindako obrak, lizentzia behar baitute.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Udalak obra-jakinarazpena deritzoa agiria emango du, eta horren bidez egiaztatuko da obrak egin behar direla jakinarazi zaiola udalari (betebehar bat da) eta dagokion zerga ordaindu dela. Horrenbestez, agiri hori, ondorio guztietarako, obra lizentzia izango da.

3.- FINKEN BANAKETA IZAPIDETZEKO ORDAINDU BEHARREKO TASA

Kuota 118,46 €

4.- TAXI-BAIMENAK ESKURATZEKO TASA

a) Udalak baimena ematea	1.320,39
b) Baimena eskualdatzea	1.848,53

5.- DOKUMENTUAK KOPIATZEKO ZERBITZUARI DAGOKION TASA

Eskatutako plano bakoitzeko	3,70
A4 formatuan, zuri-beltzean egindako kopia bakoitzeko (10 kopia baino gehiago egiten direnean kobratuko dira)	0,11
DIN A4 formatuan eta koloretan egiten den kopia bakoitzeko	0,89
A3 formatuan eta zuri-beltzean egindako kopia bakoitzeko	0,30
A3 formatuan eta koloretan egiten den kopia bakoitzeko	2,22
Informazioa CD eta disketeetan ematea	4,78
Hiri Antolaketako Arauei buruzko informazioa CD eta disketeetan ematea	71,41

6.- IDATZIZ EGINDAKO HIRIGINTZA- EDO ADMINISTRAZIO-KONTSULTAK IZAPIDETZEKO TASA

Kuota	59,33
Itxita eta artxibatuta dauden espedientei buruzko kontsulta bakoitzeko	3,82

7.- UDAL BIDE PUBLIKOETATIK TXAKURRAK JASOTZEAGATIKO TASA

Txakurra bide publikotik erretiratzea.....25,72 €

Txakurtegian egoteagatik, eguneko.....5,30 €

8.- UDALTZAINGOAK ATESTATUAK EGITEAGATIK TASA

Hirugarren batek eskatuz udaltzaingoak atestatuak egiteagatik..... 51,45 €

9- ARMA LIZENTZIA ESKAERA IZAPIDATZEKO TASA

Kuota.....28,44 €

10.- ANIMALIA ARRISKUTSUAK EDUKITZEKO BAIMENA IGORTZEAGAITIK TASA

Kuota..... 55,56 €

11-ALDERDI-ESKARIZ EDO UDALAREN IZENEAN AURRI-EGOERA ADIERAZTEKO HASITAKO ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEKO TASA

Kuota 633,76 €

12.- GARABI-ZERBITZUA

Ibilgailuak besteak beste gaizki aparkatuta daudelako bide publikotik kentzea	75,52
Zepoa kentzea	26,65
Udaltzainek kendutako ibilgailuak udal-lokaletan gordetzea, eguneko edo egun-zatiko	8,88



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

13.- HONDAKIN SOLIDOAK ETA GELDOAK BILTZEKO, TRATATZEKO ETA APROBETXATZEKO ZERBITZUAK.

	ZERBITZUAK DESCRIPCIÓN DE LA TARIFA	URTEKO ZERGA 2018
A)	NAITAHEZ HARTZEKOAK DIREN HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK EDO HORIEN PAREKOAK DIRENAK BILTZEKO, TRATATZEKO ETA APROBETXATZEKO EDO DEUSEZTATZEKO ZERBITZUA	
1	Bizileku partikularrak	165,92
2	Elikagai edo edari-denda, okindegi belar-denda, gozotegi eta antzekoan establezimendi komertzialak eta biltegiak	
2a	Elikagai edo edari-dendak- 100m2-ra arte	309,67
2b	Elikagari edo edari-dendak- 101-250 m2	444,29
2c	Elikagai edo edari-dendak- 251-500m2	888,61
3	Fruta-dendak	444,29
4	Hotelak,ostatuak eta landetxeak	
4a	8 gelara arte	421,18
4b	9-16 gela	631,78
4c	16 gelatik gora	842,40
5	Egoitzak, aterpetxeak, udalekuak etab.	842,40
6	Merkataritza orokorrean	311,02
7	Bankuak , finantza erakundeak, korreos eta antzekoak	1.066,31
8	Etzetresna elektrikoen tailerrak, fabrikak, biltegiak eta dendak	
8a	Tailerrak, fabrikak eta biltegiak 100m2-ra arte	355,44
8b	Tailerrak, fabrikak eta biltegiak 101-500m2	799,73
8c	Tailerrak, fabrikak eta biltegiak 501-1000m2	1.066,31
8d	Tailerrak, fabrikak eta biltegiak 1001-3000m2	1.421,75
8e	Tailerrak, fabrikak eta biltegiak 3001-10000m2	1.688,35
8f	Tailerrak, fabrikak eta biltegiak 10000m2 tik gora	1.954,93
9	Garajea-aparkalekua	
9a	5 ibilgailura arte har ditzakeen garajea-aparkalekua	106,79
9b	10 ibilgailura arte har ditzakeen garajea-aparkalekua	129,48
9c	30 ibilgailura arte har ditzakeen garajea-aparkalekua	220,22
9d	30 ibilgailutik gora har ditzakeen garajea-aparkalekua	311,02
10	anbulategiak	
10a	250m2-ra arteko anbulategiak	533,17
10b	250m2 tik gorako anbulategiak	1.546,16
11	Profesionalen bulegoak	415,35
12	Erabiltzen ez diren merkataritza, industria edo zerbitzu jardueretako etxabeak eta bestelako eraikinak, biltegi-moduan erabiltzen ez direnak	133,32
13	EKOIZLE HANDIAK. Erabiltzaileak kontainer bat edo gehiago erabiltzeko aukera baldin badu, kuota hau ezarriko zaio(lokalaren dimentsioa kontuan hartu gabe): 1000 l. edo edukiera baliokidea duen kontainer bakoitzeko	2.665,81
14	Ostalaritza, jatetxe, taberna, pub eta antzeko establezimenduak, dantzalekuak eta joko-aretoak	
14a	25m2-ra arte	355,44
14b	26-50 m2	390,99
14c	51-100 m2	444,29
14d	101-250 m2	533,17
14e	251-500 m2	710,88
14f	500m2-tik gora	799,73
15	Ileapaindegiak, estetika-zentroak, jostunak eta arte-galeriak	311,02



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

16	ikasketa-akademiak	300,35
17	Kulturako eta dibertimendurako sozietateak	
17a	100m2-ra arte	444,29
17b	100m2 tik gora	533,17
18	Baserriak	82,96

Ehuneko 30eko hobaria ezartzen da auzo konposta egiten dutenentzat.

Titular batek eraikin berean jarduera bat baino gehiago baldin baditu, ordaindu behar duenak kuota handieneko jarduerari dagokion prezioa ordainduko du. Era berean, titular batek eraikin berean jarduera bat baino gehiago baldin baditu eta, aldi berean, etxebizitzarako erabiltzen badu, ordaindu behar duenak kuota handieneko jarduerari edo erabilerari dagokion prezioa ordainduko du.

Tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira bertan bizi den pertsonetako bat Nekazaritzako Gizarte Segurantzaren altan emanda dagoela egiaztatzen duten baserriak.

Sortzapena. Ezarritako prezioak ordaintzeko beharra hiruhileko bakoitzaren lehen egunean sortuko da, eta hiru hilez behin egingo da likidazioa.

14.- LOGOPEDIA ZERBITZUAREN TASA

Hileko kuota (astean bi saio).....14,47 €

15.- ETXEZ ETXEKO ZERBITZUAREN ONURADUNEN PARTAIDETZA EKONOMIKOA

SUBJEKTU PASIBOA

1 Hauek hartuko dira subjektu pasibotzat:

- A) Etxez etxeko zerbitzua erabiltzen duten pertsona nagusiak, haien egoera mendekotasun-egoeratzat jotzen badute Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza Departamentuko balorazio-zerbitzuek, beti ere Sakontzenen balorazioan 3 puntu baino gehiago baldin badituzte.
- B) Etxez etxeko zerbitzua erabiltzen duten pertsona nagusiak, autonomotzat jotzen badituzte Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza Departamentuko balorazio-zerbitzuek, beti ere Sakontzenen balorazioan 4 puntu baino gehiago baldin badituzte.
- C) Ezinduak, ezindu gisa baloratuak egoteaz gain, beste pertsonetikiko mendekotasunaren eskalan 15 puntu baino gehiago baldin badituzte, hau da, eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko beste pertsonen mende baldin badaude.
- D) Gizarte- eta familia-egoeragatik, familia-antolaketarako kanpoko jendearen zaintza behar duten pertsonak.

2. Gaitasun ekonomikoa balioztatzeko, aldagai hauek hartuko dira kontuan:

a) ERRENTA

Familia-unitateak guztira dituen sarrerak hartuko ditugu errentatzat:

Lan-etekinak, baita pentsioak eta gizarte-aurreikuspenetako prestazioak ere, haien erregimena edozein delarik ere.

Higigarrien eta higiezinen kapitalaren etekinak.

Enpresa- edo lanbide-jardueren etekinak.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

(Balio horiek kalkulatzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarako ezarritako arauak jarraituko dira).

b) ONDAREA

Higigarrien eta higiezinaren guztizko kapitala hartuko dugu ondareztat.

(Balio horiek kalkulatzeko, Ondarearen gaineko Zergarako ezarritako arauak jarraituko dira).

Higigarrien kapitala: kontu korronteko eta eperako gordailuak, inbertsio-fondoak eta pentsio-fondoak, balore higigarriak, bizi-aseguruak eta aldi baterako edo biziarteko errentak, arte-objektuak, antzinatasuna, bitxiak eta baliozko objektuak.

Higiezinaren kapitala: landa- eta hiri-ondasun guztiak.

Ohiko etxebizitza: ohiko bizileku gisa finkatuta dagoen titulartasuneko etxebizitza.

Ondarearen mugak 2018.urterako hauek dira:

Kide bakarreko familiak: 38.521,61 € urteko
Bi kideko familiak: 77.043,22 € urteko
Hiru kideko familiak: 115.564,83 € urteko

Muga hauek Aldundiak zehazten dituen kopuruetan eguneratuko dira 2018. urterako.

c) FAMILIA- EDO BIZIKIDETZA-UNITATEKO PERTSONEN KOPURUA:

Familia-unitatea: senar-emazteak eta haien mende dauden haurrek edo ezinduek osatzen dute, bai eta judizialki guraso-ahal luzatua edo birgaitua duten adin nagusiko ezgaituek.

Bizikidetza-unitatea: ohiko bizilekuan batera bizi diren pertsona guztiak osatzen dute.

Gaitasun ekonomikoaren gaineko datuak faltsutzeak edo ezkutatzeak zerbitzuak eten ahal izango ditu aldi baterako edo betiko.

ZERGA-KUOTA

Zerbitzu-orduko prezioa 20,70 euro

Onuradunak orduko gehiengoz 12 euro ordainduko du.

16. TUTORETZAKO ETXEBIZITZAK

Autónomoak	44,03	Zerbitzu guztiak barne
Menpekotasun ertaina Dependencia moderada (Grado 1)	53,62	Zerbitzu guztiak barne
Menpekotasun haundia Dependencia severa (Grado 2-3)	67,05	Zerbitzu guztiak barne

*Egoitzako zerbitzu guztiak sartzen dira prezioaren barne: garbiketa, medikua, elikadura etab. Soilik onartzen dira eskaerak zerbitzu guztiakin

Oharrak : Ordainketak

Egoiliar bakoitzari bermatzen zaio lanbidearteko gutxieneko soldataren ehuneko 23a bere erabile-ra libreko kopururako, bere irabazien %85 ordaindu ondoren tarifa bezala.

Egoitzako ekarpen gehiengoa izango da 67,05 (menpekotasun maila 3-2)

Egoitzako ekarpen gehiengoa izango da 53,62 (menpekotasun maila 1)

Egoitzako ekarpen gehiengoa izango da 44,03(menpekotasun maila 0)



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Erabiltzailaren banakako ondarearen balio haundiago bada urtebeteko Lanbide arteko Gutxiene-ko Soldataren (LGS) %50 baino, hasieran esleituko zaion ekarpena gehieneko ekarpenaren berdi-na izango da.

Tutoretzako etxebizitza egoiliar bakoitzari bermatzen zaio lanbidearteko gutxieneko soldataren ehuneko 23a bere erabilera libreko kopururako, bere irabazien %85 ordaindu ondoren tarifa bezala.

Tutoretzako etxebizitzak tasak egokituko dira Gipuzkoako Foru Aldundiko dekretura (15/2015 Foru Dekretua, ekainaren 2koa, Gi-puzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzekoa).

KONTZEPTUA	2.018
17.-EZGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO UDAL LAGUNTZA TEKNIKOA	
Hiileko kuota, alokairu gisa:	
Mugikortasunerako laguntzak: garabiak	15,89
Garbitasunerako eta bainurako osagarriak: bainurako aulki birakaria	5,30
Atsedenerako laguntzak: ohe artikulatua	15,89
Dutxarako aulkia	5,30
Tasa hau ordainduko dute laguntza teknikoak jasotzen dutenak, betiere, gutxieneko diru-sarreraren bermeko laguntzaren onuradunentzat ezarritako diru-sarrerak baino altuagoak badituzte. Ondorio hauetarako, familia unitatzetat joko dira mendekotasun-egoeran dagoen pertsona eta horren ezkontidea edo azatezko bikotekidea soilik.	

18.- GIZARTE LARRIALDIETAKO ETXEBIZITZA ERABILTZEAGATIK

Kuota hilean.....555,27

Etxebizitza hau familia batek baino gehiago erabiliko balu, tasa denen artean ordainduko da, araudiak ezartzen dituen irizpideak kontuan hartuz.

19- LUDOTEKA ERABILTZEKO URTEKO KUOTA

Urteko kuota66,63

20.- UDAL-HILERRIAN EMATEN DIREN ZERBITZU ETA EMAKIDEI DAGOKIEN TASA ARAUTZEKO ORDENANTZA FISKALA

a) Ehorzketa bakoitzagatik	423,56
b) Errausketa bakoitzagatik, errauts-kutxatila barne	430,08
c) Errausketa eta hilotzen hondakinatarako kutxatila	376,26
d)Horma-hilobira, panteoira eta hezurtegia gorpuzkiak edo errautsak gordeketa edo lekualdaketa	138,55
e) Panteoien garbiketa, lurpetik ateratako gorpu bakoitzeko (kaxarik gabe)	180,31
f) Nitxoaren garbiketa (kaxarik gabe)	152,14
g) Hezurtokiaren emakida	617,42



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Ehorzketa edo errausketagatiko tasan % 30eko hobaria ezarriko da, baldin eta frogatzen bada heriotzaren datan hildako subjektu pasiboaren familia-unitatekoa den norbaitek 2002 eta 2012 bitartean hilerriko tasa ordaindu duela.

Hobari hori ez da aplikatuko frogatuta geratzen bada, subjektu pasiboa hil den datan bere erroldatze-agirian zehaztutako etxebizitzako beste pertsonaren bat ehortzi edo erraustu bada azken 15 urtetan, baldin eta pertsona hori hildakoaren familia-unitatekoa bada.

Hobari horren aplikazioari dagokionez, ez dira kontuan hartuko adinekoen egoitzen helbideekin egindako errodatzeak.

ZORTZI.- Aldaketak sartzen dira tasa arautzen duen Baztartxo aretoan Udal zerbitzuak emateko edo udal jarduerak egiteo prezio publikoak arautze dituen Ordenantza fiskalaren eranskinean, eta honela geratzen da idatzita:

ZERBITZUAK EMAN EDO JARDUERAK BURUTZEA BAZTARTXO ARETOAN

	PREZIO ARRUNTA	PREZIOA FAMILIA UGARIENTZAT
Sarrera orokorra	5€	4€
Ikusleren eguna, haur zinema eta zineforum	3€	2,50€
5 sarrerako bonoa	15€	15€
10 sarrerako bonoa	30€	30€
Bonoaren erabilpena pertsonala da eta ezin da eskualdatu. Erabilpen data: 2018/12/31 arte 5 sarrerako bonoa soilik irailaren 1 etik aurrera egongo da eskuragai eta honen erabilpena irailatik abendura bitartean izango da.		

Familia ugarien prezio murriztua ezartzeko, familia ugariko indarrean dagoen txartela aurkeztu beharko da.

ZUZENEKO IKUSKIZUNAK

	PREZIO ARRUNTA	PREZIOA FAMILIA UGARIENTZAT
Profesionalen ikuskizunetarako, amateurren ikuskizunetarako edo hirugarrenek antolatutako ikuskizunetarako sarreraren prezioa, kopuru hauen artean:	0-30€	0-30€



BEDERATZI.- Aldaketak sartzen dira **AURRETIKO BAIMENA, KOMUNIKAZIO EDO ERANTZUKIZUNEKO ADIERAZPEN BITARTEZ, BAITA JARDUERA HASI ONDOKO KONTROLEN, ALDIZKAKO KONTROLEN ETA ALDIZKAKO BERRIKUSPENEN BITARTEZ ERE, HERRITARREN ETA ENPRESEN JARDUERAN ESKU-HARTZE ADMINISTRATIBOKO ZERBITZUAK EMATEAGATIKO TASA ARAUTZEKO ORDENANTZA**ren 6. Artikuluan eta honela geratzen da idatzita:

6. artikulua – Zerga-kuota

Tasaren zenbatekoa kalkulatzeko, tarifa hauek aplikatuko dira:

Tarifak:

Epigrafe hauen arabera izango dira:

1. epigrafea. Aurretiko komunikazioa behar duten jarduerak sailkatuak

Tasa jarduerak sailkatuak kontrolatzeko behean adierazitako arauetan aurreikusita dauden administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharko da:

- a) Merkataritza eta zerbitzu jakin batzuen liberalizazioaren inguruko premiazko neurriei buruzko abenduaren 26ko 12/2012 Legearen eranskinean jasotakoak, Legearen 2. artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituztenean.
- b) Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1999 Lege Orokorraren II. eranskineko B) atalean xedatutakoak.
- c) Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzeko azaroaren 10eko 4/1995 Legearen 9.bis artikuluan xedatutakoak.
- d) Otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan jasotakoak.
- e) Aurretiazko komunikazioa emateko betebeharra duten gainerako jarduerak sailkatuak, arauetan aurreikusita daudenak.

Tasa honen eraginetarako, baimena behar duten jarduerak izango dira makinak instalazio osagarri guztiak edo jarduerak sailkatuan jardutea, eta baita horiek lekualdatzea, handitzea eta zaharberritzea ere.

Instalazio osagarriak izango dira galdara-gelak, airea girotzeko instalazioak, hotz-ganberen instalazioak, erregai likidoak metatzeko biltegiak, transformazio-zentroak, erradiodiagnostiko medikoko instalazioak, eta abar, beste jarduerak nagusi bati lotuta daudenean. Horrelakoetan, tarifa ezarriko da, bakar-bakarrik, instalazioa ipintzeko baimena edo egiaztapena jarduerak nagusitik bereizita izapidetzen bada.

Establezimenduak handitzeak handitutako m² kopuruaren arabera ordainduko dira. Hau da, handitutako m² kopuruaren arabera, tarifa bat edo beste bat ezarriko da.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Jarduera sailkatuak kontrolatzeko administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasa (ardurapeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa)

Kale Nagusian, Julio Urkixo Etorbidean, Guardia kalean eta Ibaiondo kalean garatzen diren jarduerak:

50 m2 bitarte.....	323,93
51 eta 150 m2 bitarte.....	649,05
151 eta 500 m2 bitarte.....	1.297,33
500 m2 baino gehiago.....	2.595,14

Udalerriko gainerako kaleetan garatzen diren jarduerak:

50 m2 bitarte.....	161,97
51 eta 150 m2 bitarte.....	324,53
151 eta 500 m2 bitarte.....	648,66
500 m2 baino gehiago.....	1.297,57

Hirigune historikoan kokatutako denda txiki guztiak epigrafe honetan xedatutako tasaren ordainketatik salbuetsita egongo dira.

2. epigrafea. Jarduera-baimena eta ondoren aurretiko komunikazioa behar dituzten jarduera sailkatuak

1.- Tasa honen eraginetarako, baimena behar duten jarduerak izango dira Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1999 Lege Orokorraren II.A) eranskinean jasota daudenak, eta baita horien lekualdatzea, handitzea eta zaharberritzea ere.

2.- Era berean, ikuskizunak edo jolas jarduerak egiteko erabiliko diren lokal edo eraikinen establezimenduetarako baimena beharko dute Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzeko azaroaren 10eko 4/1995 Legearen 9. artikuluan jasotako jarduera edo instalazioek, eta halaber, ikuskizun edo jarduera mota aldatzeak.

Jarduera sailkatuetarako edo establezimenduetarako baimenak emateagatik eta geroko kontrola egiteagatik ordaindu beharreko tasa

2.A: Jarduera-baimena

Kale Nagusian, Julio Urkixo Etorbidean, Guardia kalean eta Ibaiondo kalean garatzen diren jarduerak:

50 m2 bitarte.....	485,90 €
51 eta 150 m2 bitarte.....	973,58 €



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

151 eta 500 m2 bitarte.....1.946,00 €
500 m2 baino gehiago.....3.892,71€

Udalerriko gainerako kaleetan garatzen diren jarduerak:

50 m2 bitarte.....242,95 €
51 eta 150 m2 bitarte.....486,79 €
151 eta 500 m2 bitarte.....972,99 €
500 m2 baino gehiago....1.946,35 €

2.B: Udalaren ondorengo kontrol-jarduketa, aurretiko komunikazioaren ondoren egin beharrekoa

Kale Nagusian, Julio Urkixo Etorbidean, Guardia kalean eta Ibaiondo kalean garatzen diren jarduerak:

50 m2 bitarte.....323,93 €
51 eta 150 m2 bitarte..... 649,05 €
151 eta 500 m2 bitarte....1.297,33 €
500 m2 baino gehiago....2.595,14 €

Udalerriko gainerako kaleetan garatzen diren jarduerak:

50 m2 bitarte.....161,97 €
51 eta 150 m2 bitarte..... 324,53 €
151 eta 500 m2 bitarte.....648,66 €
500 m2 baino gehiago...1.297,57 €

BIGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 16.1. artikuluan xedatutakoa betez, bitarteko ofizial honetan, Udaleko iragarki-taulan eta Gipuzkoan zabalkunde handieneko egunkarian iragarkiak argitaratuta, aipatutako artikuluan, 2. idatz-zatian, adierazitakoaren arabera, eta arau hauei jarraituz:

a) Agiriak erakusgai dauden lekua: Udaletxeko Kontuhartzailletzan.

b) Agiriak aztertu eta, hala badagokio, erreklamazioak egiteko epea: 30 lanegun, iragarki hau azken aldiz argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.

Honako hauek egin ditzakete erreklamazioak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17.artikuluan adierazitakoak.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Erreklamazioak aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Orokorra. Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako lekuetan ere aurkez daitezke erreklamazioak.

Erreklamazioen hartzailera: Udalbatza osoa.

HIRUGARRENA: Informazio hau jendaurrean jartzeko epea amaitu eta erreklamaziorik edo oharrik egin ez bada, behin betiko bilakatuko dira hartutako erabakiak, erabaki gehiagoren beharrik gabe.

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Miguel Angel Bastida, Sonia Vázquez, Maitane Unanue, Janire Igoa,

KONTRATKO BOTOAK: Iraitz Otaño, Jose Joakin Etxaniz

Azkoitia, 2017ko irailaren 21ean

Kontu-Hartzaileak